

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

- **Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?**

Gure proiektuaren banaketa eta komunikazio kanalak ikasleen, familien eta ikastolaren arteko harreman zuzenean oinarritzen dira. Eskaintzen dugun zerbitzua ikastolan bertan egiten denez, kanalak hurbilekoak, zuzenak eta eraginkorrak dira.

Komunikazio-kanalak:

Bezeroengana iristeko, honako komunikazio kanalak erabiliko ditugu:

- Posta elektronikoa: merendolen inguruko informazioa (egunak, ordutegia, prezioa, izen-ematea) gurasoei informatzeko.
- Ikastolaren ohiko komunikazio-bideak (eskolako plataforma digitala, sare sozialak, edo oharrak): informazioa modu ofizialean zabaltzeko.
- Kartelak eta iragarkiak ikastolan bertan: ikasle eta familiak ekintzen berri izan dezaten.
- Ahoz-ahoko komunikazioa: ikasleen, gurasoen eta irakasleen arteko harreman zuzenaren bidez.

Komunikazio-kanal hauek konfiantza sortzen dute, informazioa modu argi eta zuzenean iristen zaielako.

Banaketa-kanalak:

Gure kasuan, banaketa ez da produktu fisiko baten garraioa, baizik eta zerbitzuaren eskaintza zuzena ikastolako espazioetan:

- Merendolak: ikastolako gela eta espazio komunetan eskaintzen dira, eskola-orduetatik kanpo.
- Taberna zerbitzua: larunbatetan, ikastolako taberna dagoen eremuan eskaintzen da, eskola kirola edo bestelako ekintzak (adib: ate irekiak) daudenean.

Horri esker, ez da kanpoko azpiegiturarik edo garraiorik behar, eta kostuak txikiagoak dira.

Salmenta-kanalak:

Salmenta aurrez aurrekoa izango da:

- Merendolen kasuan, izen-ematea aurretik egingo da, eta ordainketa ekintzaren egunean bertan.
- Tabernan, produktuak zuzenean salduko dira erosketaren unean.

Salmenta-kanal hauek sinpleak eta gardenak dira, bezeroarentzat erosteko eta ikasleek kudeatzeko errazak.

Bezeroarekiko harremana (5 faseak):

1. Pertzepzioa: familiek ikastolan bertan ikusiko dute eskaintzen den zerbitzua.
2. Ebaluazioa: prezioak eta baldintzak txikipark edo antzeko aukerekin alderatuko dituzte.
3. Erosketa: izen-ematea edo kontsumoa zuzenean egingo dute.
4. Entrega: zerbitzua momentuan bertan jasoko dute.
5. Salmenta ondorengoa: familiek iritzia eman ahal izango dute, hurrengo jarduerak hobetzeko.